

Guardia-Arabako Errioxa


9,6 km |  JOAN-ETORRIA MODERATUA |  676m |  Walking 1h. 55' |  Running 1h. 15' |  www.walkingandrunning.es





SAN GINES PARKEA (BASTIDA) > TOLOÑO (1.271m)







 Guardia


Ibilbide klasiko honen abiagunea San Gines parkea da; Bastidako aldirietan; bertan barbakoak, mahaiak eta umeentzako jokoak daude. Mahasti eta artadi artean Peña de la Cruz haitza inguratuko dugu eta gurutzokiaren aldapan gora eginik Toloñoko Andra Mariaren basilizaren aurrietara helduko gara; Erdi Aroan fraideak bizi izan ziren bertan, baina XV. mendean gero hutsik dago. Handik Ebro ibaiaren ikuspegi ederra dago: meandro handia soeren artean. Soilgunetxo bat zeharkatu eta Toloño mendiaren gailurrera iritsiko gara. Eguratsa argia izanez gero, gailurra oso gozagarria da noranahi begiratzen dugula.

 Bastidan sartu eta berehala, Briñasera iristean, erne egon behar dugu ezkerreko aldetik (edo eskuineko aldetik herritik bagatoz) San Gines parkeko desbideratzea hartzeko, Bastidatik pare bat kilometrora dagoena. Aparkaleku bukaeran bide bikoitza hasten da, eta eskuinekoa hartuko dugu.

San Ginesko aparkaleku bukaeratik hasten da ibilbidea, lurrezko bidean ( 1). Metro batzuen ondoren banatu egiten da; eskuineko bidea jarraituko dugu ( 2) biltegi txiki bat pasatu arte, eta ondoren ezkerrean joango gara beste bidezidor batetik; bidegurutzea ondo seinaleztatuta dago, mugarri batekin eta marka hori eta zuriekin ( 3a) ( 3b).

Toloñoko haitzen bertikalaren azpian gaude; aldapa handitu egiten da eta altuera hartuko dugu denbora gutxian. San Gines oso behean ikusten da ( 4).

Bidea jarraituz haitz handi baten ondotik pasatuko gara, "Peña la Mesa" delakotik, eta ondoren beti aurrera egingo dugun bidera iritsiko gara ( 5). Aldapa bi bidetan banatzen da; ez du axola nondik joan, leku berdinerira iritsiko gara intentsitate gehiagorekin edo gutxiagorekin. Eskuinetik joango gara bidea mozteko ( 6) aldapa handian ( 7) Humilladero ermitara bidean.



Walking & Running ARABA-ÁLAVA

Handik Ebro ibaiaren ikuspegi ederra dago: meandro handia soroen artean.



Hor, bide zabala atzean utzi eta beherantz egiten hasiko gara Toloñoko Andra Mariaren santutegiko hondarretara iritsi arte, ezkerreko bidea hartuz (📍 8a) (📍 8b).

Monjeak bizi izan ziren santutegi horretan Erdi Arotik XVIII. mende bukaerara arte. Lehenengo Gerra Karlistan eraikina apurtu egin zen, 1835ean su eman baitzioten.

Santutegiaren ondoan soilgune handi bat dago (📍 9); aurrera segi (📍 10), haitzak dauden norabidean, eta bertan, aldapa leuna duen bidezidorra aurkituko dugu, ehun metro ingurukoa (📍 11).

Haitzak igaro ondoren zelaigune txiki batera iritsiko gara, eta aurrean Toloñoko mendizerra ikusiko dugu (📍 12). Eguratsa argia izanez gero, gailurra oso gozagarria da noranahi begiratzen dugula. Toloñon bigarren mailako beste tontor batzuk daude altitude antzekoan, adibidez erpin geodesiko bat duena, eta askotan mendizaleek tontor nagusia dela uste dute.

Jaisteko bide bera egingo dugu, baina irrist ez egiten saiaturko gara harri solteak dituzten bidezidorretan.



Interesguneak

- Eltziegoko mahasti bidea.
- Guardiako aintziren ibilbidea.
- Ibilbide berdeak Navaridasen.
- Bercijanako bide berdea.

Ibilbide gehiago hemen

www.alavaturismo.eus
www.arabakoerrioxa.eus
www.rutadelvinoderiojaalavesa.com

Arabako Errioxako mahastiak 📍

